

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Apirilak 6, 59. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



M. K. GARMENDIA:
"Euskara makalegia da
armatzat hartzeko"

ATB
ARRASATE TELEBISTA
22.
kanalera

ZER DAKIGU MENOPAUSIAZ?



Arrasate
Kirolak

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

Adi ATBren

ikusle!

22.

Astelehenetik aurrera

k a n a l e r a
g o a z

Bai, zuk hobeto ikus dezazun egingo dugu aldaketa hau. 23.kanalean emititzen egon gara orain arte eta, eginahalak egin arren, ezin izan dugu sartzen zitzaigun interferentzia ezabatu.

Horregatik, datorren astelehenetik aurrera, aldaketa txikitxo eragin beharko diozu zeure aparailuari. 23.kanaletik 22.era pasatu eta kito.

Astelehenetik aurrera askoz ere garbiago ikusiko duzu Arrasate Telebista. Zutaz arduratzen garelako.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:
J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzen erantzunkizunik.



Informatika

EUTGko kalkulu zentruan ikusi ahal izan nuen lehen aldiz ordenadore bat. Hogetahiru urte eman dira ordudanik eta ez dut uste, garaiko erabiltzaileen oroitzenen aparte beste inon geratuko dena IBMtzar haren arrastorik. Pribilegiatuak omen ginen, zibernetikako gizartearen hastapenetan ordenadorez ikasi ahal izateagatik. Dirudenez, enbidiaz begiratzen ziguten beste unibertsitat zentruetatik, haren gisako tramankulu sofistikatuaz lan egitea ez baitzen hain erraz lortzen.

Fortran, Cobol eta orain gogoratzen ez ditudan beste zenbait lengoiaz jabetu behar izan genuen. *Bit, byte*, ferritazko nukleo eta abar luze baten kontzeptuetara sar erazi zitzaizgun, zertan ari ginen eta ozta-ozta uler genezakeen mundu berri hartan noiz arte iraungo genuen geure buruei galdetzen genielarik. Sarri irrealizatzen genuen mundu ikaragarri harek gure ahalmen intelektual ez ote zuen agortuko beldur geunden. Hain diferentea zen!

Urteak eman dira eta guk "Datu-Prozesua"ren deiturapean ezagutu genuen inguru erdi sorgindu harek, bizitzaren arlo guztietara hedatu ditu bere tentakuluak, informatika izenaren bitartez. Japoniarrek diotenez, 1965az geroztik munduraturiko giza-

kiak berezko dohainez jantzita jaiotzen dira, informatika ahaltsuari dago-kionez. Zaharragoek, hein handi batez behintzat, ez omen dugu gure izakeran oraingoek sortzez darakusten aparteko nolakotasuna. Bertutea falta zaigu, antza.

Informatika bizitzaren estiloa bera aldatzen ari da. Gaur eguneko gazteak euren kulturaren baliabiderik erabilienetakoa izanik ez dira informatikaren zergatikoa planteatzen. Agian, egitekotan, zertarakoa itaunduko diete euren buruei, gero eta aukera konplikatuago eskaini dezakeen zientzi aplikapenaren bitartez noraino hel daitezkeen galdegai izango dutelarik.

Ezin da ordenadorerik gabeko gizartea ulertu. Ezinbesteko tokia hartzen dute gure bizitzetan. Produktzio, medikuntza, artea, kirola, sukaldaritza, diseinua, abelkuntza... hots, eguneroko errealitatearen maila guztietara iristen da informatikaren itzala. Berak erregulatzen gaitu eta, maiz, berarengan ordezkatzten dugu gure erabakien erantzunkizuna.

Informatikak, hezkuntz sistema osoaren euskarri ordeztzina izanik, mundu praktikokoaren hiritar eragile eta sortzailea landu beharko luke. Hori, noski, oraingo giza-lemazainen konplizitateaz.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagarisa auzoa - 1/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

baldana

- Medikuntza orokorra
- Txertaketak
- Kirurgia
- Laborategia
- X izpiak
- Odontologia
- Ile apaindegia

URGENTZIA 76 27 97

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.
Tfnoa: 76 27 97
BERGARA

Arrasate Musikalen egungo

egoera

Lerro hauen bitartez, egungo Batzar Buruaren geroko espektatiben noizik behinkako berri ematen da.

Errealitatea bitxia da. Arrasate Musikaleko egoera akademikoak egongaitza izaten jarraitzen du, fisikoki eustezina eta aurrekontuei dagokienez miserablea.

Azken hilabete hauetan, Batzar Buru honi Udaleko Hezkuntza eta Kultura Batzordeko zinegotziekin elkarrizketa organikoak izateko deitu zioten. Oraingoan gure eritzia entzun dute. Mediatu ere egin dutela uste dugu eta erantzun baten zain gaude.

Bitartean, ikasleen kopurua poliki-poliki urritzen hasi da. Nonbait, aukerako beste ekintza batzuen aniztasunaren aurrean gure proposamenak behin izan zuen indarra galtzen doa, eta ondorioz interesa gutxituz. Guzti honen arrazoi nagusia ordea, murgilduta gauden ziurtasun falta progresiboa izango den beldur gara.

Kontratatutako gure irakaslegoaren soldata pareko erakunde eta kontserbategiek paktatutako soldatetara ez da inola ere iristen.

Gure gizartean gaur egun kontserbategi eta akademia ederrak eta berriak sortzen ari dira eta gure egoera kontutan hartuz, hori iraingarria iruditzen zaigu.

Aipatutako elkarrizketei bukaera emateko Arrasate Musikal kontserbategia instituzionalizatzeko bideak jorra daitezen nahi dugu. Udal gobernuaren babesean egongo da sortuko den herrirako fundazio publiko baten bidez, eta azken honen eraketa eta gobernu-organoak luze-zabalean eztabaidatuko dira.

1990/91 ikasturterako izena emateko bide zuzen eta bakarra delakoan gaude, besterik izanez gero, zalantzas gainezka dagoen egoera honek bereak egingo luke.

Arrasaten, 1990eko martxoaren 28an.

Arrasate Musikaleko Batzordea

Zuzenketa

Zuzendari jauna:

Martxoaren 23an kaleratu zen Arrasate Pressen "Arrasate ikastola dela eta" gutunean, 5. lerroan zera agertzen zen 'Euskeraz nahasten hasi zen ikastola' eta ez 'euskeraz irakasten hasi zen ikastola', nik jarri nuen bezala

Zuzenketa hau egingo bazenute eskertuko nizuke kontzeptua ez bait da berdina. Mila esker

Guraso bat

Jon Igoari

Lehenik, besarkada bero bat har ezazu zure inguruan hazi ginenen partetik. Arrasaten jadanik denok dakigu baduzula zure Peña eta zoriontzen zaitugu, ez bait dago extra kalitateko futbolari bere peñarik ez duenik. Baina zure alde izan ditzakegunak zure peñaren kontra ditugu. Zakarregia dela pentsa dezakezu bainan guk hemen idatzitako kontrakoak edo zuzenketak idatz ditzatela beroiek ere.

Zergatik mugatu dute bere bazkidegoa berrogeitamar pertsonatan? Zergatik ez diote Arrasateko edozeini aukera eman bertako bazkidea izateko?


Beraiek jakingo dute, baina gure sarrera eskatu genuenean ezinezkoa zela adierazi ziguten eta kamiseta bat eskatu genienean ere ezezkoa, beraiek bait dira kamiseta horren eramale bakarrak.

Alperrik gertatu zitzaigun aipatzea zure koadrilakideak ginela edo antzerakoak, beraiek gero eta protagonistagoak bait ziren beraien esklusibitateaz. Lagun talde haundi baten ideia zela konprenituz geure ahaleginari etsi genion, baina ez dugu etsiko zu animatzen, eta jakin ezazu Meson Manolo inguruan eratutako taldearen barnean ez daudela ezta bostetik bat ere, Arrasaten zu jarraitzen zaitugunetik.


Agurtzeko har ezazu, inongo peñaren barruan ez egonagatik, zure lagun eta ezagun guztien partetik beste besarkada bat.

Hurrengo poteorarte.

Zure Arrasateko adiskideak




Zer deritzozu trafiko isunak igotzeari?



Tere Ibabe
(langilea)

Lartxo dela uste dut. Multak ipintzea ondo ikusten dut, baina gehiegi ez.



Francisko Morales
(langilea)

Bai eta ez. Ondo ikusten dut jendea horrela errespeto gehiagorekin arituko delako, baina gehiegi igo dituztela uste dut.



Miguel Amozarrain
(langilea)

Bai, gehiegikeriak egiten ditugula uste dut eta igotze hau egin beharrekoa dela. Kotxea erabiltzean errespeto gutxirekin ibiltzen gara eta ea horrela kontzientziatzen garen.




Manoli García
(ikaslea)

Ondo ikusten dut. Isunak igotzean, arau-hauste gutxiago egingo dira isunak ez ordaintzearen.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas

(Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

URRIN

Urizarri Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**




**BELUN
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

6 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Mascarada para un crimen". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Family business". 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

7 LARUNBATA

- Xake txapelketa. 4etan INEM ganean. Arrasate-Bergara irratiz.
- Zinea: Alai: "Corazones de hierro". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Adios al rey". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Antzerkia: "Ama begira zazu" antzezlan ikusteko aukera. Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.
- Sarrerak alde zurretik salgai egongo dira.
- 1940an jaiotako emakumeen bazkaria.
- Sevillana dantza ikastaroa Musakolako saloian 11etatik 13,00etara
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

8 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Corazones de hierro". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Family business". 5, 7,30 eta 10,15etan.

- Mondra Abetxuko futbol partidua. 5etan Atxabalpen
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

9 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Corazones de hierro". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Family business". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola

10 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Corazones de hierro". 7 eta 9,30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

11 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Kontzertua: Arrasate musikari taldearen eskutik. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Doan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina.

12 OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.


ERAKUSKETAK

- Xabi Oteroren, Saharaun herri buruzko argazki erakusketa ikusteko aukera. Askapenak antolatuta. Monterronen egun hauetan zehar.

IKASTAROAK

- **Emakumeentzako iharduerak:** Sexualitateari buruzko ikastaroa, eskulan tailerrak eta bideo-forum. Monterron kultur etxean. Apirilaren 23tik ekainaren 21era. Arrasateko Udalak eta Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak antolatuta. Informazio gehiago 79 09 00 tñoan, Kultur departamentuan.
- **Margo eta Marrazki ikastaroa.** Apirilaren 7tik 30era. Monterron kultur etxean.
- **Deba Garaiko Udal Elkarteak antolatuta, Tekfor ikastaroa.** Informazio gehiago: 79 04 59 tñoan.
- **Enkofragintza ikastaroa.** INEMek antolatuta. Informazio gehiago 79 13 95 tñoan.
- **Pertsona fisikoen gaineko errentaren aitortpenari buruzko ikastaroa.** Bergarako UNEDen, Zuzenbide departamentuak antolatuta. Izen emateko epea: apirilaren 11a arte.

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta,aldi berean, erabilierrazak.
- Marmol berde koloreko zurtz-laruzko azalak, 24 kilatetako urrez sutan eginak estanpazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokonposizioa bi zutabetan eгина, lipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulerri ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditurik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

Euskara ikasteko erabili beharreko obra

OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Ernesto Amaia Argitaletxea

Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93

ARRASATE
7 PRESS

“ Zer dauka Arrasatek? Zer baldintza berezi bil-
du dira herri horretako gizartean behin eta berriro
aitzindari agertzeko? Kooperatibak aipatzea ia ia to-
piko bihurtu da mundu osoan. Euskalgintzaren espa-
rruan, Arrasatek eskaintzen ari den esfortzua, ado-
rea eta imajinazioa ez da makala, bestalde.

Arrasate Euskaldun Dezagun taldearen inguruan
sorturiko giroak eta euskalgintzarako gogoak herri
zehatz baten mugak gainditzen ditu. Bere emaitzak
hor daude, begi bistan, Arrasate Press aldizkaria,
Arrasate Telebista, atzo sinatutako akordioa, Euskal
Herri osoan oihartzunik haundiena lortu duten eki-
menak besterik ez aipatzearren.


Arrasaten gertatzen ari dena arretaz segitu behar
da. Ez dira konformatu bertakoak hitz hutsekin eta
printzipio deklarazioekin. Praktikara pasatu dira. Ia
ia desgastatu arte erabiltzen diren “batasuna” eta
“euskara” hitzak, hartu eta eguneroko jardunera
eraman dituzte, imajinazio -kopuru haundiak apos-
tuan jarritz. Normalkuntzarako eta euskararen irau-
penerako bideak Arrasatek pasatzen dira. Atzokoa,
Arrasaterako garrantzi historikoa badu, Arrasatek
kanpo, denontzako eredu.”

(Jon Basterra kazetariak, Egin egunkarian)

“ Irudi finkoak dauden bitartean bertsolaritza
ghetto bihurtzeko arriskua dago. Gazte jendea ez
hurbiltzekoa ere bai, eta datorrena oso jende konkre-
tua izatekoa. Beharbada publikoaren zati haundi
batek eskatzen duela uste dugunari erantzutearren
mantentzen dira gai, ikuspegi, itxura, hizkera eta
jarrerak. Publikoak baldintzatzen du kantantearen
jarduna, baina bertsolarien jardunak ere eragin
dezake entzule motak erakarri edo uxatzerakoan.
Uniformetasuna apurtzea denek eskertuko dute”

(Leinzko bertso Eskolakoek, DVren Zabalik-en)

Zer dira eta zertara-
ko zinpeko itzultzaileak?



Zinpeko itzultzaileen zeregina testu ofizialen itzulpena egin edota legez-
tatzearena da. Auzietako ai-
torpenak, erakundeen arte-
ko hitzarmenak, eskariak, agiriak, azken finean
hizkuntza ezberdina duten erakunde edota
pertsonek arteko testu orijinalak eta itzulpenak
gauza bera diotela ziurtatzen du, aldi berean
itzulpenaren jatorrasuna eta legezotasuna
bermatuz.

Atzerri Arazoetarako Ministeritzak froga
batzuk konbokatu (iaz lehen aldiz euskararen
kasuan) eta agiria ematen die gainditzen dutenei bi
hizkuntza jakinen arteko itzulpenen aurrean
notarioarena egiteko.

Hasiera batean Estatu-hizkuntzetarako ematen
bazen ere, Estatu barruko beste hizkuntza ofiziale-
kin behar berbera zegola ohartu eta badira urte
batzu galiziera eta katalanerarentzat zinpeko itzul-
tzaileak daudela. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta
Interpretarien Elkarteak borroka luzea izan du
euskarak ere behar honen aurrean baliabideak
eduki ditzan. Lortu da azkenean eta orain erakun-
deak eta herritarrek eurek dute hitza. Itzultzaile
hauen zerbitzuetara jotzeak on baino ez die ekarri-
ko nahi baino gehiagotan egiten diren nolabaiteko
itzulpenei.

Gerardo Markuleta
Zinpeko itzultzailea

SOKOIA

Zeharkale estalia Arrasate



ARANBURU
COTEMAR

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ZENBAKI

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Zuzenbidea
- Juridikoa
- Finantzaketa
- Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Larunbatean, Ama begira zazu

Larunbatean, gaueko 10,30etan hasita, *Ama begira zazu* antzeslana ikusteko aukera izango dugu Amaia antzokian.

Ama begira zazu, ikuskizun baten izena da eta baita kaleratzen duen taldearena ere.

Eneko Olasagastiren zuzendari-tzapean, lau aktore profesional ari dira emanaldian zehar: Mikel Gamendia, Kontxu Odriozola, Jose Ramon Soroz, eta Elena Irureta.

Jende honen asmoa, normalean antzerkia iristen ez den lekuetara heleratzea da, baina lanaren kalitatea jaitsi gabe.

Testuak herri hizkuntzan idatziak dira. Eguneroko gatazka xeheak eta



arruntak aurkezten dira, pertsonaiak idazterakoan benetazko pertsonak izan bait dira gogoan hartu direnak. Umorea da, bestalde, bata bestearen arteko lotura eta estiloa markatzen duena, euskal saineteaz mintzatu gaitezkeelarik.

Beste ezaugarri aipagarri bat,

taldeko bi emakumeak, Kontxu eta Elena izan dira idazleak, eta hauen ikuspegi ez ohizkoa eranstean zaio orain arte egindako antzerkiari.

Azkenik, aipatu lana zuzenean euskaraz prestatua izango dela eta hizkuntza hontan bakarrik aurkeztua izango dela.



Albiste izan ditugu orain dela gutxi Estepan Plazaola arrasatearra eta Gerardo Markuleta ofatiarra.

Biek ere atera berri dute Madrilen zinpeko itzultzaile agiria.

Estepan Bergarako Udaleko euskara dinamizatzailea dugu gaur egun, eta Gerardo, berri, San Viator ikastolako Irakaskuntza Ertainetako Erreformako zuzendari akademikoa. Biak ere *Arrasate Press*-en kolaboratzaile finak ditugu, Gerardo *Zeuk Sortua* atalaren arduradun, eta Estepan *Famatuen ahonk* atalarena (Jesus Mari Garairekin batera).

**Rover 214 eta 216-16
balbularen aurkezpena
Arrasaten**

Apirilaren 18an

AUTO SAN ANDRES TAILERREAN

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22



ROVER

Jose Letonaren ondarea

Asteleheneroko Gobernu Bartzordean, Euskaltzaindiak Jose Letonari buruz luzatutako eskaria onartu zen, zeinen ondorioz, etorkizunean honela banatuko litzatekeen historialari arrasatearraren ondarea:

Liburutegia: Liburu eta argazkien albumak, Jose Letona zenaren familian geldituko litzateke.

Artxibategia: bi artxibagailuetan aurkitutako argazki, gutun, plano, etab guztiak. Inbentarioa egin, Bilboko Azkue liburutegian katalogatu, eta berriro Mondragoera ekarriko litzateke Jokin Zaitegi liburugelan gordetzeko (jabe-goa Maite Letonaren eskuetan geldituko litzatekeelarik).

Gerraren Paperak: Jose Letonak Gerraeneatik ateratako 2 karpitez osatua. Mikrofilmatu, eta bi kopia egingo lirateke (Maite Letonarentzat bata, eta Monterronen uzteko bestea).

Udala prest dago egitasmoa aurrera eramateko, eta baita 200.000 pta.ko dirulaguntza emateko. Dena den, Maite Letonaren onspenaren zain gelditzen dira.



Txandaka

Telebista karratua ez denean

“Telebista munduari begira dagoen leihoa” dela idatzi zuenak, hori baino errazagoa den zerbait esatea ahaztu zuen, alegia, telebistak komunikabide tresna izan behar duela.

Elkarren artean informazioa, portaera eta ideiak transmititzeko tresna egokia izan daitekeela telebista.

Baina esandakoa esanda, garbi dago telebistagintza goitik behera eta kontrol handipean erabili den botere-instrumentua dela.


Television Española dugu adierazgarri egokiena: monopolio gisa antolatua eta Estatu sistema zentralizaturatua. Sasoi hartan telebistagintza, frankismoaren ideologia homogeneizatzaile eta zapaltzailearen lanabes paregabea izan zen.

Monopolioan aritu zen TVE hogei urtez, 1982an ETB sortu zen arte. Telebista autonomikoak, sistemak erai-ki zuen kontrolari aurre egin zioten bakarrak izan ziren. Hautsia zen telebista monolitikoaren moldea.

Urte batzuk geroago 1989an Telebista Pribatuen Legea onartuz, gobernu zentralak telebistagintza komertzialari ateak ireki zizkion.

Satelite-telebistaren presentzia geldiezina, komunikazio makro-taldean presioa eta guztien gainetik, publikitatearen espansio nahia erabakiorrak izan ziren TB pribatuen sorreran.

Telebistagintza zentralizatu eta bakarreraren sistematik, TB autonomikoak onartzera zabaldu zen, Estatu osotzen duten nazioen presioa zela eta. Monopolio publikotik, pribatuak legeztatzer behartuta sentitu zen gero...zein da orain botereak eman beharko duen hurrengo pausua?



Edorta Arana (*)

Legeak dio telebistagintza, Estatuak legeztatu eta bideratzen duen zerbitzu publikoa dela, baina autonomi estatutu eta telebista pribatuen legeak tartean utzi duten telebista lokalentzako zirrikitua ez du inork arautu.

Kate pribatuak kontutan hartzen dituen legea onartua izan eta berehalaxe agindu zuten TB

lokalak arautzeko legea. Baina ez da horrelakorik gertatu, eta bitartean, konturatu gabe, Estatu osoan, Euskal Herrian bezalaxe, ugaritu dira esparru mugatuaz, udal, kultur elkarte eta baita nahi komertzialez bultzaturiko telebista kanalak ere.

Bazirudien kontrolatua zutela egoera, kanale autonomikoak lehenengo, pribatuak gero eta kitto, hor amaitzen zen telebistaren eskaintza eta “beharra”. Errealitateak bultzaturik ordea, konturatu dira telebistak ez duela karratua izan beharrik. Marjenetatik sortzen direla aukerak eta erronka berriak badirela.

Zer arrazoi tekniko, zein lege-ordenamenduk muga dezake komunikaziorako sortu den tresna? Nolako aurpegiz esan dezakete telebista lokalek ez dutela lekurik?

Arrasate Telebista erreto bat da. Euskararen aldeko postura, tresna berri bat Mondragoeko bizilagunen elkar ulertzeko, informazio eta entretenimendurako aparailua...eta baita, jende arteko komunikabideen erabilera libre eta zabalaren aldeko dema ere.

ATB, telebistagintzek karratua izan beharrik ez dutela eraskusteko lekukorik onena dugu.


(*) EHUko Irakaslea



Arrasateko jatetxea

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

oliok, **Artea**
lientzoak,
akwarelak eta
eskulanak
Ferrerias 25



Lau Ikerketa sozio-ekonomiko

Nekazaritza, ostalaritza, industria eta irakaskuntza

Halaxe da, bai. Arrasateko Udalak, urriaren hasieran lau ikerketa sozio-ekonomiko bultzatzeko erabakia hartu zuen; helburua, ikerketa horien emaitzak eskuan izanda, planteatzen diren arazoei behar bezalako erantzuna ematea.

Lau teknikari kontratatu zituzten lan horiek bete asmoz, eta badirudi laster prest egon daitezkeela haiek aurkeztu behar dituzten txostenak.

Lehenengo ikerketa, Nekazaritza eta abeltzaintza munduari dagokio. Patxi Montero izan dugu lanaren arduraduna.

Balorazioa, nahiko pesimista. Geroz eta jende gutxiago ari da lehen sektoreko lanetan Arrasaten; eta gelditzen direnak, gainera, edadeko pertsonak omen dira.

Bigarren lana, Zorione Garitanok egindakoa, inguruetako turismo eta ostalaritzari buruzkoa. Arrasaten,

kooperatiben munduak ekartzen dituen bisita ugariak zerbitzu eskari handia sortzen dute; eta egia esan, eskari horrentzako ez dago behar bezalako erantzunik.

Industria eta birkontratazioari buruzko azterketa, Antxon Herreroren kontu. Lan honen asmoa, ahaztuak egon daitezkeen industri-iharduera bultzatzea, sendotzea.

Bukatzeko, Jose Antonio Azurmendik prestatuko duen txostena; honako hau, irakaskuntza ez-arautuari dagokio. Ikasketa osagarrien mundua aztertu da hemen: musika, hizkuntzak, etab. bezalako ikasketen mundua, hain zuzen ere.

Lan guzti hauek erredakzio fasean omen daude. Eta badirudi, epe laburrean Udalak eskutartean izango dituela.

Arazoak ikusi eta gero, konponbideak aurkitzen saiatu behar.

Usteak uste...

Sasoi batean, gu txikiak ginela, Musakolan behintzat, ez zegoen bere osoan iraungo zuen lorategirik. San Antolin eta San Lorentzoko etxeekin gogoratzen naiz gehien bat. Urteetan hango lorategi edo, dei zitezkeenak, desastre hutsa ziren. Umeok guztietan sartu eta nahasmena sortzen genuen.


Gure koadriletako gehienen familiak laupabost semealabez osatuta zeuden. Kanpotik etorritako familiak ere beste horrenbeste. Etorrin gehienak gazteak ziren eta umeak izateko garaian. Eskolak, iraskasleak bezala, han eta hemen agertzen ziren, perretxikoen pare. Arrasate gaztea zen.

Halako batean, urteen poderioz jakina, inguruak txukuntzen hasi ziren. Zer gertatu zen? Umeak desagertu egin zirela, edo hobeto esanda, hazi eta heldu.

Azken urteotan bi fenomeno ematen ari dira batera. Zahartzen ari garela batetik, geroz eta bizi itxaropen luzeagoa dugularik gainera, eta jaiotzak ikaragarri jaitsi direla. Urte haietako joerak trukatu egin dira: maisu larregi dago, eskolen arteko lehia bizitu egin da, dauden ikasle-gai apurrak irabazteko, jubilatuen etxe eta zaharren egoitzak ugaltzen ari dira, geriatría modan dago, menopausia bezalako gaitzak hobeto ezagutu beharra ditugu... En fin, gure gizartea zahartzen ari da eta gerorako dugun erroka hortxe dago, egokitu beharra dago egoera berriari.

Esaera zaharrak "Zaharrago eta zuhurrago" dioen eran, laster akaso "Zaharra ederra" da esatera iritsiko gara.

Joxe Aranzabal



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



San Andres auzoaz ikerketa

Hirugarren fasean, hobekuntz proposamen zehatzak

1989. urtean, Udalak San Andres auzoaren ezaugarriari buruzko hainbat ikerketa bultzatu zituen.

Orain arte burututako bi faseetan, berezko ezaugarriak aztertzeaz gain, blokez-bloke eta etxez-etxe egindako inkestaren datuak jaso dituzte. Datu horien ondorioz, badirudi etxebizitzaren isolaketa dela auzokideen kezka nagusia. Horrez gain, igogailuak, berogailu sistemak, etab.en instalazioa ere kontutan hartu beharreko gaia dugu.

Datu guztiak eskuan, Eusko Jaurlaritzako arkitektuek egitasmoaren hirugarren faseari ekin diote

orain dela gutxi. Fase honen ondorioz, hobekuntz proposamen zehatzak lortu nahi dira: zer egin daitekeen etxebizitza mota bakoitzean, ze kostu izango luketen obrek, etab.

Hari mutur guztiak ondo lotzeko, datorren astean bilduko dira Udaleko ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako arkitektuak eta Suradesa enpresaren ordezkariak. Agian bilera horren ondoren helduko dira emaitzak.

Bien bitartean, gogoratu Suradesa enpresak behin-behineko bulegoa jarri duela IMI zentruan, argibide bila dabilen edonori erantzuna eman asmoz.

Geriatzi asistentzia

Datorren apirilaren 17an hasi eta uztailearen 27ra arte, denetara 395 orduko iraupena izango duen geriatzi asistentziarako ikastaroa emango da Iturbide egoitzan. Ikastaro hau prestakuntza ezegokia edo eznahikoa duten langabetuei zuzenduta dago, eta denetara 20 ikasle onartuko dira. 2 psikologo, mediku bat eta ATS bat izango dira irakasleak.

Emakumeentzako egitaraua

Apirilaren 23tik ekainaren 21era luzatuko dira Monterronen Emakumeentzako Iharduerak egitarauaren barne antolatuko diren ekintzak. Besteak beste, sexualitateari buruzko ikastaroa, jantzigintza, puntua eta gakorratza, eskulan tailerrak, eta bideo-forum-a egingo dira. Informazio gehiago, Udaletxeko Kultura Departamentuan, 79 09 00 tfoan.

Jaiotzak

Amantegi Arrinda, **Eukene**. Martxoaren 26an.
Gonzalez Agiriano, **Mikel**. 28an.
Romeo Jimenez, **Chantal**. 29an.
Uribe-Etxebarria Etxebarria, **Lur**. 29an.
Conde Matiller, **Oiher**. Apirilak 1ean.
Jimenez Roche, **Andoni**. 1ean.

Ezkontzak

Aiur Ezpeleta Calvo & M. Estibaliz Saez de Gordoia Elizondo. Zibililez. Martxoaren 31an.
Jose Ignacio Agirre Arregi & Miren Arantza Iriondo Azkoaga. Elizaz. Martxoaren 31an.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
martxoaren 30erako

- Meki-zuku hotza otarrainskekin
- Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
- Txahal-solomoa espinaka gainean Rossini saltsaz
- Errekako amorraina ziapesebaionez eta piper muturtxodunen saltsa
- Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz.

2.900 pzta BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

SASKI-NASKI

lehiaketa



Asteroko sariak



KOLTA

Aranzabal Akobe
elektrogailuak

ROWENTA
ESKU-ASPIRAGAILUA



**OKENDO
KIROLAK**

ZAPATILAK



MELIA BIDAIAK

Etxe Aundi jatetxea



AFARI BAT
BI LAGUNENTZAT

Ikatz

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA
AUTOMATIKOA



ASTE HONETAKO
SARITUAK

JON GALDOS
Esku-aspiragailua

IBAN DELGADO
Bi lagunentzako afaria

ITZIAR ULLIBERRI
kirol zapatilak

CHARO BALANZATEGI
argazki makina

Hileko sari handia



*80.000 pta. ko kirol jantziak,
Okendo Kirolak-ek emanak*

Galdera:

Nola du izena Berriak programako aurkezleak?

Erantzuna:

Izen-deiturak:

Helbidea: Adina: Tlfnoa:

59 lanpostu Arrasaterako

1990erako Lan-Sustapenerako programaren barruan

Joan den martxoaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Enplegu Institutuak (INEMek), 1990erako Lan-Sustapenerako programa sinatu zuten. Programa honen arabera 1.412 lan-kontratu sortuko dira Gipuzkoan (eta egitasmoaren kostua 1.200 milioi pta.koa izango litzateke).

Programa honetan Diputazioak, probintziako INEMek eta Udalek hartzen dute parte.


Aurtengoan, Arrasateri 59 lanpostu tokatzen zaizkio: 20 lansaio osokoak, 17 lansaio erdikoak, eta 22 hezkuntz motakoak. Gogoratu pasa zen urtean 51 lanpostu eman zirela gure herrian planaren barruan.

Kontratazioak noiz?

Arrasateko Udalak apirila osoa du, herriko egoera aztertu ondoren, Foru Aldundiari maiatzaren 4a baino lehen eskari zehatza egiteko.

Eskari guztiak Donostian jaso ondoren, batzorde misto batek aztertu eta onartuko ditu egoki ikusiz gero, eta momentu horretatik aurrera Udalek hilabeteko epea izango dute kontratazioak egiteko.

Horrek zera esan nahi du, maiatzaren amaiera aldera egingo direla azterketak, eta ekainean edo uztaillean aukeratuak lanean hasteko



moduan izango direla.

Nori zuzenduak

Lanpostu horietara jo ahal izateko, nahitanahiezko baldintza dugu langabezia egotea; egitasmoa batez ere gazteei, emakumeei, eta jubilazio adinera heltzen ari diren pertsoneri zuzendua dago.

Kontratu guztiak sei hilabeteko iraupena izango dute.

Udalak soldaten %30-35 inguru ordainduko luke, eta gainontzekoa Diputazioa eta INEMek.

■ Arrasateri buruzko ikerketa
Azken Gobernu Batzordeak onartu zuenez, Mondragoeko alde zaharreko "Hirigintzaren ikerketa historiko arkeologikoa"ren kopia aterako da, eta Monterron Kultur etxeko Jokin Zaitegi liburugelan jarriko, ikusi eta kontsultatu nahi duten guzientzat.

Ikerketa honen kopia ateratzeak 92.000 pta.ko kostua izango du.

■ Santxeskilariak zori onean

Gobernu Batzordeak ere, asteleheneko bileran onartu zuen Zaldibarrren santxeskilarietzako gune aproposa jartzea.

Itxura denez, hormigoizko elementu aurrefabrikatuek osatutako instalazioa izango dugu. 7,2 m. luzeran, 1,6 zabaleran, eta punturik altuena 70 zm.tara kokatuko litzateke. 236.000 pta.ko kostua izango duen instalaketa bi aste barru egon daiteke prest.

■ Altamirako etxeak

Larunbatean jakin behar ziren Altamiran egiten ari diren babes ofizialeko 41 etxeen jabeen izenak, baina Udal Zerbitzu teknikoaren txostena ez zen garaiz heldu eta horregatik atzerapena. Etxeak abuzturako amaituta egotea espero da. Baldintza guztiak ondo aztertu eta gero, ea ordurako adjudikatuta dauden

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

* Odontologia orokorra

* Protesi finkoa

* Protesi mugikorra

* Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

■ Istripua San Prudentzian

Astearte arratsaldean, 3,30ak inguruan, Kamioi batek kontrola galdu eta hiru auto eraman zituen aurretik.

Istripuaren ondorioz, Ana Isabel Duran, 25 urteko urretxuarra hil zen. Zoritxarreko Ana Isabel lau hilabete zeramatzan haurdun.

■ Belen Arizabaleta

Poliziak astelehenean Henry Parot frantsesa atxilotu zuen Sevillan, ETAko kide izatearen salaketapean. Hurrengo orduetan Henryren emaztea den Belen Arizabaleta arrasatearra ere komisaldegira eraman zuten Baionan, handik ordu gutxitara beriz aske gelditu zelarik.

■ Argazki lehiaketa Bergaran

Maiatzaren hogeitabia arte zabalik egongo da, Bergarako VI argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenentzat, lanak emateko epea. Informazio gehiago nahi duenak, hots egin dezala Bergarako Udaleko Kultura Batzordera.

■ Paper eta trapu bilketa

Hurrengo bi larunbatetan Orkatz skaut taldeak egingo duena. Bilketa hau honako tokietan egingo dute: Erguin, Kolmenak, Munar, Uribe Auzoa, Izarra eta Eguzki dorreak, Anima Zuri eta San Andres.

Iñigo Irasuegi etxean

Dena den, oraindik ere gerra-kontseiluaren zain

Iñigo Irasuegi arrasatearra otsailaren 26an atxilotu zuen Goardia Zibilak, bere burua insumisotzat jo zuelako. Ondoren, Epaille Militarrak Alcalako espetxean bete beharreko kartzela-zigorra ezarri zion.

Pasa zen astean, Iñigok gose greba hasi zuen espetxean, insumisok bizi duten egoera salatzeke.

Baina aste honetan bertan, albiste pozgarria zabaldu zen Arrasaten, Epaille Militarrak Irasuegi askatzeke erabakia hartu bait zuen.

Makina bat jende bildu zen Seberon asteazken arratsaldean Iñigori ongi-etorria emateko. Dena den, bere egoera ez da oraindik guztiz konpondu, gerra-kontseiluaren zain egon beharko delako. Eta hori gutxi balitz, 15 egunean behin Oñatiko



Iñigo Irasuegi ongi-etorria

Goardia Zibilaren koartelean aurkeztu beharko da.

■ Biztanlegoaren gorabeherak

Argitara eman diren azken datuen arabera, Arrasatek 183 biztanle galdu zituen 1989an. Gauzak horrela, aurtengo urtarrilaren batean Mondragoek 25.843 bizilagun zituen. Bitxikeria bat, gizonezko arrasatearrak emakumeak baino gehiago dira: 66 gehiago.

■ Errentaren aitortpena

Aste honetan ireki da iazko errentaren gaineko aitortpena egiteko epea. Ekainaren 25erarte, Diputazioak bulego bat ireki du Bergarako Toki Eder auzoan (San Antonio ondoan), Deba Garaiko nahi duten guztiek errentaren aitortpen mekanizatuak egin ahal ditzaten.

LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

UDALA
Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

URONDO
elektrizitatea




- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

HAURTOKO
ARRANBURU



Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE




Idoia Barandiaran eta Leire Arana S. Viator ikastolako ikasleak dira. Gasteizen errezitatzeko lehiaketa batera aurkeztu, eta oso emaitza onak lortu zituzten hainbeste partaideren artean. Joan ~~zen~~ astean ATBren kamararen aurrean errepikatu zuten saioa, eta ikusi ahal izan zenutenez, errezitazaile bikainak dira. Ez ginateke harrituko hemendik antzesle bat baino gehiago irtengo balitzaigu. Argi.

Iganderarte luzatuko da Monterronen, Askapenak antolatutako Xabi Oteroren argazki erakusketa. Oraingoan, Xabik Saharan egindako lana izango dugu ikusgai. Aukera ederra, beraz, goi-mailako argazkigintza ikusi eta ezagutzeko. Gogoratu, igandera arte zabalik!

*"Zu Mikel Garai aspalditikan
zuretako neuzkan hitz bi
Udaletxean saiatu zera
beti leial eta garbi
lan asko daude betebeharrak
hori ikusten da argi
denon partetik milaka esker
da zure bidetik segi"*

(Pedro Urain EAJko zinegotzi bertsolariak,
Mikel Garai EAKo zinegotzi-ohiari botatako agurra)



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabllpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garrantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



◀ Ostiralean, Erguineko Eskola Publikoko 8. mailako neska-mutikoak izan genituen bixitari Arrasate Pressen. Makina bat galdera prestatu zituzten guregana etorri aurretik, kazetarien munduaz duten interesa erakutsiz. Guk, geure aldetik, txoko honetara ekarri nahi izan ditugu. Hurrengora arte!

izen propioak

■ **Estepan Plazaola**, 28, arrasatearra, Zinpeko Itzultzaile agiria atera berri du Madrilén. Estepanek Maestria ikasi zuen Eskola Politeknikoan, eta gaur egun Gasteizko Itzultzaile Eskolan ari da ikasten. Bergarako Udaleko euskara dinamizatzailea da. AEKn klaseak eman ondoren, Eusko Jaurlaritzan hiru urte t'ardi eman ditu.


■ **Kontxi Etxebarria**, 30, arrasatearra, Mikel Garaik Arrasateko Udaletxean utzitako postua beteko du. Kontxik Pedagogia ikasi zuen Bilboko Deustuko Unibertsitatean. Azken lau urteotan San Frantzisko Xabier ikastolan lan egin du.

■ **Jose Antonio Murumendaraz**, 50, arrasatearra, Merkatuari buruzko ikerketa zehatza burutuko du Arrasateko Udalaren aginduz. Jose Antonio, Perito ikasketak egin zituen Donostian. Asam, Ulgor eta Lan Kide Aurrezki kutxan aritu izan da lanean. Merkatuko ikerketa egiteko lau hilabetetako epea izango du.

Orain bi ostiral, **Saskinaski** lehiaketaren lehenengo sariak eman genituen. Etxe Aundiko afaria **Beatriz Murgiarentzat** izan zen; argazki kamara **Leire Garairentzat**, eta disc-mana **Alaitz Etxebarriarentzat**. Argazkian agertzen ez den arren, **Olaia Vitoriak** ere zapatila pare eskuratu zuen ▶



Pasa zen ostiralean, oster, bigarren txandako irabazleak bildu genituen. Honako honetan, Etxe Aundiko afaria **Miren Larrañagarentzat** suertatu zen; argazki kamara **Estebe Llodioarentzat**; disc-mana **Gorka Kintanarentzat**; eta argazki honetan ere zapatila parearen irabazlea falta zaigu, **Leire Zenigaonaindia**, hain zuzen ere ▶



Presta
itzazu
oporrak
LORAMENDIN

Dena
kirola
egiteko



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

ARTE LENIZ


koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

Menopausia heltzen denean...

...bizitza alda diezazuke, baina ez derrigorrez txarrerako

Berrogei-berrogeitamar urte bitartean edo beranduxeago, emakumeak zenbait aldaketa igarriko du. Sofokoak izango ditu, umore txarrez edo triste ikusiko dugu eta askotan bakarrik sentituko da. Ingurukoek, behar bada, kaso handirik egin gabe, menopausia duela esango dute eta pasako zaiola pentsatu. Baina ez zaio pasako, dagoeneko bere obarioek ez dute hormonarik sortzen edo ez behintzat behar adina hormona sortzen, eta bere gorputzean aldaketa sakonak emango dira.



Fernando Kristobal

Azken urteetako arazoa

Fernando Kristobal ginekologoak adierazi digunez, hormonei buruz oso gutxi jakin izan da eta are gutxiago ernaltze-hormonei buruz. Arrazoia oso sinplea omen da. Emakumeari orain berrogeitamar urte arte, oraindik haurrak izan zitzakeela heltzen zitzaien heriotza, beraz arazoa ezezaguna zen. Euskal Herrian, 1900. urtean batz besteko bizi-esperantza 33 urtekoa zen, eta heriotzaren arrazoia ez zen zahartzaroa izaten, gaixotasunen bat baizik. Gaur egun, berriz, emakumeen batz besteko bizi-esperantza 80 urtekoa da. Urteen poderioz beraz, gure gorputzaren zenbait atalek ez du behar bezala funtzionatu, tartean obarioak.

Obarioak agortu

Urteak pasatu ahala, gorputza ez dabil gaztetan bezain ondo. Kristobalek aipatu digunez, urteekin oba-

rioek funtzionatzeari uzten diote, honek emakumeari arazo ugari sorterraziz.

Emakumearen obarioek hormonak sortzen dituzte, estrojenoa, hain zuzen. Hormona hauek, beharrezkoak dira emakumearen gorputza behar bezala ibil dadin. Nerbio-sistemaren orekari eusteko, gorputzaren hotz-be-roa erregulatzeko, metabolismoaren oreka gordetzeko edota ehunen gazte-

gara, baina halaz ere triste. Itobeharrrak izan ditzakegu edota denbora laburrean simur ugari agertuko. Guzti hau, emakumeak bere oreka gordetzeko beharrezkoak diren hormonak ez dituelako. Arazo hauek behar bada urte pare batean pasako zaizkio, baina ager daitezkeen beste zenbait ez.

Esan bezala, gorputzaren tejidoak gazte gordetzeko beharrezkoak ditu emakumeak aipatutako hormonak. Hezurak, gorputzaren ehunak direnez, hormona hauek ez izatean, kaltetia galtzen has daitezke eta hezurren gainbehera arina etorri. Majinak, bestalde, zalutasuna galduko du eta sexuharremanak eskatu egin daitezke.

Emakume bakoitzarengan desberdin

Emakume guztiek ez dute menopausia berdina izango. Zenbaitzuk sintoma batzuk besterik ez dituzte ezagutuko, besteren batzuk guztiak eta gutxi batzuk igarri ere ez dute egingo menopausia heldu zaienik, hilekoa ez dutela izan ezik. Menopausia ona izan ala ez, gure edadetutako obarioek sortzen dituzten hormonon arabera egongo da. Zenbait emakumek hilekoa izateko beste hormona ez ditu sortuko, baina bere gorputza ondo ibiltzeko beste, bai. Beste zenbaitek aldiz, oso hormona gutxi sortuko ditu eta beraz, menopausia sofrituko dutela esango dugu.

Ginekologoa testigu soila ez

Fernando Kristobalek azaldu digunez, ginekologoa ezin izan daiteke emakumearen gainbehera azkarraren

Emakumearen obarioek hormonak sortzeari uztean, emakumearen gorputza ez da behar bezala ibiliko

tasunari eusteko, beharrezkoak izango ditugu. Emakumearen obarioek, behar beste hormona sortzeari uztean, arrazoi argi gabeko depresioak sor daitezke. Oso familia harreman onak izango ditugu, lanean ere gustora arituko

lekuko pasiboa. Emakumeak jakin egin behar du, ginekologoak lagun diezaiokeela eta honek lagundu ezean, laguntza eskatzeko eskubidea duela.

Fernandok aipatzen digunez, normalean da urteekin pertsona zahartzea,

baina ezin utz daiteke zahartze horretan gainbehera sakona eman dadin. Zahartzeak prozesu lasai eta orekatua izan beharra du. Fernandok azaltzen digunez, ezin daiteke emakumearen bizitza luzatu, gelditzen zaizkion urteak txarto bizi arazteko. Bizi-kalitatea hobetu beharra dago, eta gaur egun emakumeak ez du zertan bere bizitzaren herena arazo ugari dituela bizi. Ginekologoak, arazo horiek konponetzen lagun diezaguke, tratamendu egokia jarriz. Zenbait kasutan hormonak hartu beharko ditugu, gure obarioek sortzen ez dituztenen orde. Fernandok, hormonei diegun bildurra kendu behar dela aipatzen digu, gaur egun hartzen direnak gure gorputzak sortzen dituenak bezalakoak bait dira.



Menopausian, emakumearen zahartze prozesua azkartu daiteke

Bizitzeko ilusioa berreskuratu

M

ertxe 53 urteko emakumea da, ezkondua eta bi seme-alabaren ama.

Etxeko lanak egiteaz gain, kooperatiba batean lan egiten du.

Mertxek, menopausia heldu zitzaionean, oso une larriak pasatu zituen. Triste aurkitzen zen, moralez lur jota eta ezertarako gogorik gabe. "Ez nuen arrazoi zehatzik txarto egiteko, baina hala nengoen, itolarriak izaten nituen eta negarri ematen nion behin baino gehiagotan".

Etxeko lanak ere, justuan egiten zituen. "Oso nerbioa izan naiz beti, geldi ezin egon eta azken bi urteetan ez nuen ezer egiten. Arropa garbitzen nuen, bai, baina plantxa egiteko gogorik ez nuenez seme-alabak eskolara joateko orduan, orduantxe arrapatuta plantxatzen nien arropa, zerbait jantzi behar zuten eta". Ez omen zen lan egiteko gogo falta bakarrik, bere gorputza

zaintzeari ere utzi zion. "Ez nintzen ez pelukeriara ez beste inora joaten, senarrarekin kalera irteteko gogo barik nengibilen eta sexu-harremanak ere erabat okertu ziren".

Mertxe, arrazoi gabe ere, denekin haserretzen zen eta askotan gertatzen zitzaionaren erria senarrari leporatzen zion. Alabak, dagoeneko nagusitxoak eta ama horrela ikustean aitari bota zion erria.

"Familia giroa erabat hondatu zen" dio Mertxek malko tartean, emozionalu egin bait da garai haiek gogoratzean. "Gogo barik ere, jateari ekin nion eta urte batean hogeiki kilo hartu nituen".

Psikologoarengana ere jo zuten, baina gauzek ez zuten onera egin. "Gero eta okerrago nengibilen eta neure burua leihotik botatzeko esan balidate, botako nukeen".

"Orain sei hilabete ginekologoarengana joan nintzen urteroko errebi-

sioa egitera eta hari ere gertatzen zitzaidana kontatu nion. Ginekologoak, proba ugari egin zitzaion eta menopausia zela eta, gorputza ez nuela behar bezala adierazi zidan. Hori omen zen nire gaitz guztien arrazoia." Mertxek ginekologoak jarritako tratamenduari ekin zion, nahiz eta inolako konfidantzarik ez izan. "Ni dagoeneko betirako horrela geldituko nintzela konbentziturik nengoen". Hilabeteak pasatu ahala, gero eta hobeto zegoela konturatu zen, eta horrek bere aldetik ere zerbait jartzera animatu zuen. "Sei hilabete pasa dira eta ez dut esango ehuneko ehunera nabilenik, baina 90era bai, behintzat." Bizitzeko ilusioa berreskuratu du eta gertatutako guztia amets gaiztoa bailitzen gogoritzen du. "Nik pasatutakoa ez diot inori desio, badakit emakume guztiak ez dutela nik bezain menopausia txarra izaten, baina denek ginekologoarengana joateko esango nieke."

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta



Arrasateko Udala

Geriatric Asistentziarako Ikastaroa

- Edukia: Psikologi eta osasun-aspektuak zaharren asistentzia egokia emateko.
- Destinatariak: Eskola-Graduatua duten enplegatugabeak.
- Zentrua: Arrasateko Udala
Otalora Lizentziatua,31.
- Plazak: 20
- Izen ematea eta matrikula: 90-IV-11 arte
- Hasiera: apirilaren 17an.
- Bukaera: uztailaren 27an
- Ordutegia: klase teorikoak 9etatik 13,30etara
klase praktikoak 14,30etatik 18,30etara.
- Ikastaroaren iraupena: 395 ordu.

Informazio eta
matrikula:

Arrasateko Udala
Juan Jose Madinabeitia. Tfnoa: 79 09 00 edota Deba Garaiko Udalak,
Enplegu-dinamizatzailearen bidez.

“Euskarak adieraziko Euskal Herri garela”

Mari Karmen Garmendia

Mari Karmen Garmendia dugu Eusko Jaurlearitzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia. Joan den astean Arrasaten izan zen, Euskararen Erabilpena Areagotzeko Hitzarmena sinatzeko burutu zen ekitaldian. Guk aukera aprobetxatu eta elkarrizketa egin genion. Honako hau, berarekin izandako solasaldiaren muestra bat baino ez da.

— *Arrasate Press: Egingo diguzu Arrasaten Euskararen Erabilpena Bultzatzeko sinatu zen Hitzarmenaren balorazioa?*

— *M. Karmen:* Hitzarmen historikoa izan daiteke, elkarri eman genion hitza betetzen baldin badugu. Elkarlanean egindako zerbait delako. Eta bestalde, hitzarmenak euskararen erabilera egunerokotasunean —hizkuntzaren bizitasuna horrek adierazten du, bizitzeko tresna delarabiltzeko balio du. Eskolan, komunikabideetan, etab.etan egiten ditugun ahaleginak gero babesa behar dute, sare hori beharrezkoa da hizkuntzaren normaltasuna lortzeko.

— *Nola ikusten duzu gaur egun euskararen egoera? Orain 25 urte baino hobeto, txarrago?*

— Orain hogeitabost urte baino txarrago ez. Batetik argi izpiak ikusten ditut eta bestetik laino beltzak. Ezin dut esan “jaun andreok, hau konpondu da, etorkizuna ziurtatu dugu”. Itsua beharko luke batek gure egoera benetan kezkarria ez dela esateko. Baina itsua beharko luke baita ere, ez ikusteko zenbat gauzatan aurrera egin dugun eta zenbatetan aurrera ez dugun egiten, nahiko genukeen baino sarriago guk geuk hizkuntzarekiko leialtasuna

printzatuta izaten dugulako.

Nik ez nuen nire formazioa euskaraz egiteko aukera izan, gaur egun, aldiz, aukera hor dago. Orain hogeitabost urte testu zaharrak izan ezik, irakurtzeko aukera gutxi genuen. Gaur egun olerkia, poesia... irakurtzeko aukera dago. Gauzak aldatu egin dira. Hizkuntza baten bizitasuna neurtzeko hizkuntza horretan sortzen den kulturondarea sendotzea garrantzi handikoa da. Zenbait gauza onuragarriak ditugu eta beste zenbait kezkarriak, eta kezkarrien artean, hizkuntzaren erabilerearekiko dugun hutsune edo printzatu hori.



Mari Karmen Garmendia

hain geunden txiroaraziak, bazirudien, gure etorkizuna goi mailako funtzioek, unibertsidadeak, goi-mailako zientzi aurrerapenak euskaraz jartzetik etor zitekeela. Intimidate edo funtzio arruntak, aldiz, ahuldu egin ditugu. Hortik odol-isuria dator. Eta odol-isuri hori ez dugu gelditu.

— *Arrasaten, euskarak batzeko behar zuela aipatu zenuen. Euskara izan daiteke euskaldunok batu gaitzekeen puntua?*

— Bai, dudarik gabe.

horrek egiten gaitu herri. Ohiturak ez dira leku guztietan berdinak, pentsamoldeak ere ez. Nahiz eta eritzi batekoak ez izan, izan gaitzen gauza gure pentsamolde desberdinak, gure eritzi kontrajarrak, gure pozak eta negarrak euskaraz izateko. Gauza askok egingo gaituzte herri, baina euskarak adieraziko du Euskal Herri garela. Mitxelena irakurri nion, euskara ahulegia dela armatzat hartzeko. Euskara armatzat hartzen badugu eta gure diferentzia eta konponezinak euskararekin lotzen baditugu ez da ona. Euskara ezin da bihurtu elkarri erasoka iharduteko zerbait, herri egingo gaituen lokarritzat hartu behar da.

— *Eta trinkotze horri nondik ematen zaio hasiera?*

— Batetik poztuta eta bestetik kezkatuta nago. Nik somatzen dut, asko garela euskarak batu eta ez banatu egin behar gaituela pentsatzen dugunak. Formazio, alderdi eta jarrera desberdinetatik esaten dugu hori. Beraz, diskurtso mailan bat gatoz. Nire kezka, berriz, gure mezuak eta gure jokabideak ez datozela bat da. Gure iharduera ez da izaten gure mezuaren adierazgarri.

“Gure iharduera ez da izaten gure mezuaren adierazgarri”

Ezagutza zabalduz doa, baina ezagutzatik erabilpena jotzean, benetan datu kezkarriak ditugu.

— *Euskarak intimidatzailea galduta al du?*

— Horrek garrantzi handia du. Eroso sentitzea. Erosotasun hori galtzeak ez du mesederik egiten. Pareja baten arteko harremanetan, seme-alaben artean, euskaraz hitzegiten eroso sentitzea. Egunerokotasun horretan,

Hortan saiatu behar dugu. Azkenean zer dugu amankomunean euskaldunok? Lurralde, historia, ohiturak, euskaldunei buruz beti erabili izan diren topikoez gain, zein da herri baten izatearen eta bizitzaren adierazgarririk inportanteena? “Hizkuntzari esker bizi da herria” Jakina, hizkuntza ez da helburua, hizkuntza horrek, herri horretan esan eta sortzen dena adierazi behar du. Azkenean

Heldu da txirrindua

Igandean, Kadeteen Musakolako VII kadete Txapelketa

Txirrinduaren munduan aste honetako albistea zalantza barik Euskal Herriko Itzulia badugu ere, azpiko mailetan ari diren txirrindulariak ez dira geldi geratzen diren horietakoak.

Horren lekuko, egun hauetan hasi eta hurrengo hilabeteetan burutuko diren hainbat eta hainbat proba.

Roldan jaun eta jabe

Alde batetik, gogoratu pasa den igandean antolatu zela Antzuolan Uzarragako igoeraren XV. edizioa. Proba horretan, 30 taldetan banatutako 315 gaztek hartu zuten parte.

74 kilometroak bete eta gero, Uzarragako gainan Lagun Aro-Fagorreko Iñigo Roldan izan genuen jaun eta jabe.



Alejandro Altunaren babespean diharduen Kadete mailako taldea

Atxabaltarraren denbora ordu bat, 59 minutu eta 42 segundu.

Bigarren postuan, 8 segundutara, Erkaitz Elkoroiribe; eta hirugarrenen, irabazlearengandik 29 segundutara, Gregory Struch ipamerikarra (Euskal Herrian oporrak pasatzen dagoen mutil honek ere lan ederra burutu zuen igandean).

Kadeteen txanda

Uzarragako igoeraren ondoren, hurrengo zita garrantzitsua igande honetan bertan izango dugu.

Arrasateko txirrindulari Elkartearen eskutik Musakolako VII. Txirrindulari Txapelketa antolatuko da. Laguntzailea, Musakola auzoko Alkatetza.


Igandeko proban, Gipuzkoako

lehen urteko kadeteek hartuko dute parte; guztira, 150 neska-mutiko.

Goizeko 10etan ekingo diote 42 kilometroak betetzeari, honako itzuli hau jarraituko dutelarik: Musakola, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, San Prudentzio, Oñati, Arrasate eta Aretxabaleta, helmuga Musakolako Ostalaren aurrean kokatuko delarik.

Parte hartuko duten taldeen artean, Dorletako Ama Eskolaren ardurapean eta Alejandro Altuna enpresaren dirulaguntzaz ari diren kadeteak izango ditugu.

Arrasateko Txirrindulari Elkarteak, 10etatik 11,30ak bitartean ibilgailuak erabili behar dituztenei zuzhurtasunik handiena eskatzen diete, eta bide batez, sortuko diren eragozpenengatik barkamena eskatu.



Iñigo Roldan

**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



podiuma

**Esti Loiti,
emakumezkoen
futbolaren kontuak**

Esti Loitik 20 urte ditu, eta hiru daramatza Okendo Kirolak taldean aurrelari postuan jokatzeko. "Konpetizioan hiru urte, baina futboleko jokatzeko bizitza osoa eman dut. Garagartzan hasi nintzen txikitari, tontamentien, eta gaur egun arte jarraitu".

Lehenik eta behin, Gipuzkoako selekzioan bi alditan jokatu duen neska honek futbola gizonen kontua delako topikoa hautsi nahiko luke. "Ez dut ulertzen zergatik konparatu behar gaituzten gizonen kontuekin. Badakigu maila hobea dutela; baina kontua ez da hori, guk ez ditugu indarrak euren kontra neurtzen, beste emakume batzuen aurka baizik. Ondorioz, utz diezagutela guri ahal dugun neurrian aurrera egiten".

Egia esan, ez omen da zaletu gehiegi hurbiltzen emakumezkoen partiduetara "Gurasoak, eta lagunak batzuk; Besteak barre egitera etortzen dira soilik. Atzerrian, ostera, koniatzen dutenez, gauzak oso ezberdin izaten dira: zelaiak futbola ikustera doan jende bezala. Ez da hemen halakorik gertatuko!".

Baldintza horiek medio, normala ere bada arrasatearrek emaitza onegirik ez eskuratzea. "Taldea, hutsetik sortu zen orain hiru urte. Emaitza aldetik ez dugu gehiegi



asmatu, baina tira, igertzen da geroz eta itxura hobea ari garela eskaintzen. Orain arte seriotasuna eta jarraipena falta izan zaizkigu; baina badirudi gutxika-gutxika birtute horiek lortzen ari garela".

Kontutan hartu behar ere Gipuzkoan emakumezkoen futbola maila ederra duela. "Añorga, Oiartzun, etab. bezalako taldeak Espainiako onenetarikoak dira, eta noski, guretzat oso zaila da talde horiek gainditzea. Gainera, rugbyari gertatzen den bezala, hemen ere interes asko dago jokuan. Donostia eta inguruko taldeek eskuratzen dituzte laguntza guztiak, eta barnekaldeko herrietan gauden talde galduentzat apurrak ere ez".

Ondorioz, etorkizuna ere zail xamar ageri da. "Datorren denboralditik aurrera Mondraren disziplinatik kanpo utziko gaituzte; baina asmatuko dugu zerbait. Aurrera segitzeko gogotan gaude, eta azken finean hori da funtsezkoena. Nola? Ez dakit, errifak salduz, babesleren bat aurkituz... edo auskalot!".

■ **Eskubaloian porrot**

Pasa den asteburuko partiduen ostean zeharo aldatu dira gauzak Arrasate Kirolak taldearentzat. Gure mutilek 28 eta 19ko emaitzaz galdu zuten Arabako Fuchs El Pilar taldearen kontrako neurketan. Eta horrenbestez, porrotaren ondorioz sailkapeneko lehen postutik laugarrenera jaitsi dira.

■ **Saskibaloian txarto**

Pasa den larunbatean, Arrasate Kirolak eta Agilas taldeek neurtu zituzten indarrak Musakolan. Mondragoetarrak urduri, eta ondo baino hobeto aprobetxatu zuten hori bizkaitarrek garaipen erraza eskuratzeke: 66 eta 91.

Larunbatekoaren ondorioz, zail xamar jarri zaizkie gauzak Joxe Mar Balzategiren mutilei mailari eusteko borrokan.

■ **Mondra ondo**

Igande arratsaldean Zomotzara joan, eta husnako berdinketa lortu zuen Mondrak. Emaitza honen ondorioz, arrasatearrek sailkapeneko 11. postuan aurkitzen ditugu 30 punturekin, positibo eta negatiborik gabe.

Ea igandean garaipen berria lortzen duten Atxabalpen, Arabako Abetxuko taldearen kontrako norgehiagokan.

■ **Pilotan ederto**

Ostiral gauean jokatu zen Eskoriatzan, Deba Arroa pilota txapelketaren bostgarren ihardunaldia. Arrasatearrek finago ibili ziren eskoriatzarrak baino, eta azkenean erraz nagusitu: 4 eta 0.

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

Musika beltzaren aportazio berria

Onar dezagun "Musika beltza" etiketak adierazten duela zerbait. Egia da beltz batzuren musika estandarregia dela izen horren pean sartzeko. Era berean, txuri batzuek ere esan ohi da beltzen arima erakusten zutela musika egiterakoan. Baina mugak zehazteko tentazioa uxatu eta gogora ditzagun beltzek musikaren itsaso zabalera isuri dituzten aportazio bikainak, hala nola, blues eta rhythm&blues, jazz, reggae, soul, funky, etab.

Beti ere, musika beltzak populazio beltzak historian zehar jasan dituen zapalkuntza eta marjinazioa isladatu ditu, zuzen edo zeharka, gero, txuriek kontrolatzen duten musika-industria musika beltzaren indar mingotsa ahultzen eta goxatzen duten heinean, beraiek sortutako musikamolde berriak ere gogorak dira, esanguraz beteak. Azken



adibidea, rap eta hip-hop musikak lirareke.

Duela dozena erdi bat urte, lehen kanta raperoak iristen hasi zirenean, bazirudien bizi laburreko esperimientua izango zela, oso lineala eta mugatua agertzenbait zen. Baina geroak garbi erakutsi du oihuka errezitatzeko joera hori beltzen egonezinaren adierazpide bilakatu

dela. Spike Lee zinegilearen "Do the right thing" filmea edo Musikantok eman berri duen "Hip hop artist against the apartheid" bideo ikusi diituenak badaki ez gaudela moda soil baten aurrean, musika horren atzean kontzientzia indartsu eta militantea nabari dela.

Bestealde, ezin uka musika mailan ere indartsua izan dela hip hoparen eragina eta bide berriak zabaltu dituela. Begi bistakoak dira *Public Enemy* edo *De La Soul* taldeen babilioa eta, beste testuinguru batean, Radio Futuraren "Paseo con la negra flor" kantu raperoaren edertasuna.

Musika estilo honek aukera ona ematen digu txuri inkontziente garenoi beltz kontzienteen mundura hurbiltzeko, behingoz musikaren azalean gelditu gabe.

Mikel Irizar

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,
Tfnok: 79 18 86 - 79 45 99
ARRASATE

TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKOA

BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY

AE


Garibai 10,

ETXEKO TRESNAK
ARGITEGIA



SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA

Apartmentuak
ikusteko
bisita-bidaiak
antolatuko ditugu
asteburuetan



ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizkina eta kanpoko aparkalekua


Les Gavines

**HIPOTEKAZKO
MAILEGUA**
10 URTETARA %13'75 ean



INFORMAZIOA



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIOS
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS

C/ Iturriotz, nº 11 - Tfno. (943) 7920 48 - ARRASATE-MONDRAGON


Manuel Niñerola
Grup immobiliar, s.a.

Passeig de La Salle 9
C. Sant Jordi 17
E-43850 CAMBRILS
Tel. 34(9)77 361567
Fax. 34(9)77 360754


Euskara eta botere nazionalen arduragabekeria

Euskal Gorteak eta Lege Biltzarrak euskararekiko zer jarrera izan zuten? Zer egin zuten euskararen alde?

Arturo Campion-ek dioen bezala, euskal Batzar Nagusiek eta Nafarroako Gorteak erderaren indartzeaz eta zabaltzeaz arduratu ziren, inoiz ez zuten hartu euskararen aldeko neurririk.

Nafarroako Gortea. Campion-ek zera dio: "Bertako errege leinua izan genuenean ere, Monarkiak, Nafarroan, herria deseuskalduntzen lagundu zuen. Erregeak "menditarren" jaunak izatera mugatzen ziren. Eta, geroago, herentziak eta ezkontzak zirela eta, Nafarroa Aragoiko eta Frantziako monarkia-
ren pean geratzen den bakoitzean Gorteak euskal kutsu, nortasun guztia galdu egiten dute. (X. mendean Sancho IX.a oinordekorik gabe hiltzean Nafarroa Aragoiko monarkia-
ren pean ikus dezakegu, eta X. mendetik XVI. mendera bitartean errege leinu aldaketa ugaritu ditu, Frantziakoa, Aragoikoa nahiz Nafarroakoa bertakoa).

Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa Kastilan eta Iparraldean Frantzian sartzearen ondorioz ere, bertakoak ez diren aginteei ematen zaie Euskadiren boterea. Ondorioz



gizarteko agerpide, adierazpen... garrantzitsuak erdal forma hartzen dute, euskara folklore eta behe mailako funtzioak betetzera mugatuz (etxean erabili bai, baina kalera ateratzen ausartzen ez garen jantziak bezalaxe).

Batzar Nagusiak. Gipuzkoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere ez zuten erabaki bat bera ere hartu euskararen alde.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak, adib, nahiz eta botere guztia izan irakaskuntzan, ez zuen inoiz ere deliberatu euskara irakaskuntzan sartzea. Larramendik zera zioen: "ez da idaz-

ten, eta ez da ezertxo ere irakasten euskaraz eskoletan".

Eta Batzarrak, nola egiten zituzten Batzarrak? Prokuradore askok erderarik ez zekien arren, erderaz egiten zirela dirudi, 1834eko uztailaren 2an Tolosan egindako Batzarrean hartutako erabakiak hori adierazten bait digu. Besteak beste, zera dio: asuntua garrantzi handikoa delako, eta prokuradore batzarkideek beren botoa jakinaren gainean ematea komeni delako euskaraz hitz egingo da.

Bizkaiko Batzar Nagusiak 1624ean hartutako erabakiak ere garbi adierazten digu zein hizkuntzatan mintzo ziren. Erabakioi ondorengoa da: Ipaster, Sondika, Berango, Laukiniz, Lemoniz, Ganitz, Basigo, Elexabestia eta Ubideako ordezkariak idazten, irakurtzen eta erderaz hitz egiten ez jakiteagatik Gernikako Batzarrean ez onartzea.

Beharbada, norbaitek normala dela pensatuko du, baina ikus dezagun nola deskribatzen duen Larramendik garai hartako Gipuzkoa; "lautik hirurek ez dute ulertzen erderarik". Eta, jakina, gauza bera esan dezakegu garai hartako Bizkaiaz. Beraz, nola izan dai-teke normala guzti hau?

Atalataikoan



AMA, BEGIRA ZAZU...antzerkia

Apirilak 7, larunbata, gaueko 10,30etan
Amaia antzokian

Prezioa: Aldez aurretik 400 pta. (Gazte-txartelarekin 200 pta)

Takilan: 500 pta. (Gazte-txartelarekin 300 pta)

Arrasateko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Nerabezaroa eta tabakoa erretzeko ohitura

Gure inkestarekin jarraituz, tabakoaren txanda da gaurkoan. Horrela, bada, inkesta egin zuten 987en artetik 427 dira tabakoa probatu dutenak (% 26a). Mutilak gehiago dira neskak baino: mutilen artean noizbait probatu dutenak %50 dira, eta nesken artean, %34,6.

Erretzen hasteko adina ere ezberdina da: mutilak pixka bat lehenago hasten dira (10 eta 12 urte bitartean), eta neskak, berriz, 11 eta 13 urte artean. Gehienak lagunartean hasten dira erretzen, baina multzo bat (%13a), ospakizunen bat zela eta, etxean bertan hasi zen. Oso gutxi dira bakarka hasi zirenak erretzen.

Egia da ere adin horietan tabakoa probatu zutenek, ez dutela gero gutziek erretzen jarraitu. Tabakoa probatu zuten 276 mutiletatik, 151k (%54,71ak) utzi egin zuten, eta 125ek (%45,71ak), berriz, jarraitu. Nesken artean, porzentaiak mutile-



nen parekoak dira, bai utzi dutenei dagozkieketan ere, hau da, %51,65 eta %48,34. Beraz, esan daiteke probatzen dutenen artean, erdiak ez duela jarraitzeko ohitura hartzen, eta beste erdiak, berriz, bai.

Baina erretzen jarraitzen dutenek ere, ez dute intentsitate berberaz egiten: erdiak (74 mutilek eta 43 neskek) egunero erretzeko ohitura dute, eta gainerantzekoak, noizbe-

hinka bakarrik, jaialdiren batean, asteburuetan... Argi dagoena zera da, intentsitate edo erretzeko maiztasuna gizon eta emakumeen kasuan handituz doala adinarekin. Gutxitu egiten dira noizbehinkako erretzaileak eta gehitu egiten, berriz, erretzeko ohitura dutenak. Adibidez, 20 urte inguru dituztenen artean, gutxi dira jaietan eta asteburuetan bakarrik erretzen dutenak.

Mutilei berdin zaie gorria edo beltza erre. Neskek, berriz, nahiago dute gorria, hauetako %65,75a bait da tabako gorria erretzen duena.

Gizonezkoek gehiago erretzen dute, batzbeste 9 zigarro egunean; hala ere, badira egunero 20 erretzen dituztenak, eta bakan batzuk, 30era ere heltzen dira. Emakumeek, berriz, gutxiago erretzen dute, batzbeste 5 egunean, eta gutxi dira 20 erretzera hurbiltzen direnak.

Eukeni eta Arantza

EMAKUMEENTZAKO IHARDUERA EGITARAUA

Monterron Kultur Etxea
Apirilaren 23tik ekainaren 21era

- SEXUALITATEARI BURUZKO IKASTAROA
- ESKULAN TAILERRAK
- BIDEO-FORUMA

Informazioa eta izenematea:

Udaletxean Kultur Departamentuan
Famili eta Gizarte Heziketarako Zentrua
(A.K.M. Ekintza Soziala)
Arrasateko Udala



Ikastaroa

Besaide Mendizale Elkarteak ikastaroa antolatu zuen neguko teknikak irakasteko asmoz. Jardunaldi hau hiru asteburutan banaturik zegoen. Ikastaroa Teleran izan zen, Biescatik Panticosara bidean ezkerretara dauden haitzetan, Piedrafita herritik gora, hain zuzen.

Arrasatek hamar lagun joan ginen. Ostiral arratsaldean irten eta lau ordu t'erdiko bidaia baten ondoren, goiko aterperaino iritsi ginen. Gaua zoragarria zen, zeru garbian izar dizdiratsuak eta ilargi beteak. Gorputz gainean erropa ugari jantzita eraman arren, hala ere denak leku ezkutu baten bila genbiltzan, haize fina barraineraino sartzen bait zen. Nekezak eraginda, aguro zukuratu ginen. Zapatu goizeko 6ak heldu ziren eta monitoreak esnatzera etorri ziren, ahaleginak egin zituzten baina inork ez zuen ikararik egin. Azkenik, jaiki ginen eta gosala



du ostean, aldapa batera abiatu ginen granpoia jantzi eta ume txikiak bezala lehen tiki-takak egin genituen. Geroxeago monitoreak esan zigun gure burua elurretara botateko eta pioleta erabiltzeko gorputza gelditze-ko. Arratsaldean sokak nola erabili eta korapilo garrantzitsuenak ikasiz pasa zen denbora.

Hurrengo egunean "korredor zetas" egin genuen aurreko eguneko gauzak gogoratu. Jaisterakoan bi rapel egin genituen eta batzuk, amas faltan, aspaldiko rapelaren teknikaz jaitsi ziren, batek baino gehiagok ipurdia ondo urratuta ekarriz honutza.

Hankamotz

ARRASATEKO UDALA

Euskara Sailean aldi batez lan egiteko teknikari bat kontratatu nahi da

- Eginkizuna:** Arrasateko Entitateek sinatutako "Euskararen erabilpena areagotzeko" Hitzarmenaren jarraipenaz eta garapenaz arduratzea.
- Kontratua:** Hasieran 6 hilabetekoa, ondoren 3 urterarte luza daitekeelarik.
- Soldata maila:** Udal Administrazioiko 14 maila (190.000 pezeta inguru)
- Baldintzak:** Erdi mailako titulu akademikoa gutxienez eta euskara ondo menderatzea.
- Izen emateak:** Udaletxean, apirilaren 25a baino lehen.

Arrasaten, 1990eko apirilaren 4ean

Alkatea

ARRASATEKO UDALA

Udal-Plenoak, 1990eko martxoaren 30ean egindako ohizko bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

- “Construcciones Brues, S.L.” enpresak eskainita, (Kataide) S-14 Sektoreko lurren lagapena onartzea.
- Garagartza auzoan dauden lurren bi zatiren trukea onartzea.
- U.6.14. Planeamenduko Unitatearen 2 Etxaldea Birzatatzeko Proiektuaren eskritura publikoa egitea.
- EAKo zinegotzi den Mikel Garai jaunak, bere karguari uko egitea onartzea.
- 1983an Donostian Udaletxeko balkoiko Espainiako bandera kentzeagatik Donostiako Udaleko zinegotzien eta Astigarragako Alkatearen aurka Auzitegi Gorenak emandako epaiari buruz, HB eta EA Talde Politikoen aurkeztutako mozioei ezetza ematea, eta PNV, EE eta PSE talde politikoen aurkeztutako mozio alternatiboa onartzea.
- EA, HB eta EE Talde Politikoen aldeko botoez, Lituania herriaren independentziaren aldeko mozioa onartzea.

Arrasaten, 1990eko apirilaren 3an.

Alkatea



Aste gazte

Gazteak izan. Gure bizitzak izan lezazke aro oparagoak. Gizarteari begira, emaitz mardulagoak ematen ditugun urteak izango ditugu agian. Baiña munduko mixerietan geiegi pentsatu gabe, gizonari anima amesetz asetzen zaion garai bakarria, gazte-denbora da.

I. Olea

Nik ere izan ditut hogeit urte eta ez da bizitzaren adinik politena.

Paul Nizan

Bekak

• Ondoko alorretan ikasketak eta ikerlanak burutzeko bekak eta laguntzak: musika, antzerkia, dantza eta balleta. Zinema eta argazkiraritza, arte plastikoak, liburutegia, artxibategiak eta museoak. Arkeologia. Historia-arte ondareari buruzko ikerlanak. Liburuari buruzko ikerlanak, gazteria, turismoa eta kirolak.

Beken diru-kopurua: atzerrirako 1.500.000 pta. urteko. Besteak: 900.000 pta. urteko.

Laguntzak: 600.000 pta (urtebete baino gutxiagoko lanak)

Epeak: 90-04-30 (E.H.A.A., 58 zk.)

• Bidai Sariak: Mindegi, Hitzaldi eta Kongresuetara joateko (goian aipaturiko arloetan) dirulaguntzak. Diru-kopurua: gehienez 400.000 pta. Epea: 90-10-31 (E.H.A.A., 58 zk.)

• Literatur Sorkuntzarako bekkak. 4 modalitate: poesia, narrazioa, entsaio/ikerketa eta itzulpena. Diru-kopurua: 800.000 pta. Epea: 90-5-31 (B.O.E. 90-2-15)

Lehiaketak

• "Legazpi" Antzerki Saria. Euskarazko antzerki literatura. Eskenan ordubete eta ordu t'erdia bitarteko luzerakoak, gai libre. Saria: 300.000 pta. Lanak aurkezteko epea: apirilak 30a baino lehen.

• Zumaiako Foronda Kultur-Etxearen Kartel-Lehiaketa. 2 modalitate: Erakusketa-kartela eta Antzerki-kartela. Txuri-beltzez. Saria: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 30a baino lehen.

• Kartel-Lehiaketa (Gasteiz Arte Plastikoen 9. Biurterokorako). Neurriak: 70x50. Saria: 150.000 pta.

Lanak aurkezteko epea: apirilaren 30a baino lehen.

• Argazki-Lehiaketa. Gaia: haurra eta bere mundua. Zuri-beltzez, formato libre. Saria: 125.000, 85.000, 60.000 eta 30.000 pta. eta brontzeko dominak. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 28a baino lehen.

• Kartel-Lehiaketa. Haur eta Gazte-Liburuaren Astea iragartzeko. Saria: 150.000 pta. Lanak aurkezteko epea: maiatzaren 30a baino lehen.


Arte-tailerrak

• Arteleku: Pintura Tailerra. Pintura ezagupideak dituztenentzat. Ikasle-kopurua: 20 (ikasleen hautapena egingo da). Data: maiatza, astelehenean, ostiralera. Matrikula: 10.000 pta.

• Gasteizko Udako Kultur Saila: 4. Tailer-Irekia. Pintura eta Eskultura iharduldiak.

Txapelketak

• Apirilak 8: Getxo'90ko Parapente I Txapelketa. La Galea errepidean. Goizeko 10etatik aurrera.



EGIDO

Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupe bat edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

LANA

- OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egingo. Deitu tfno honetara: 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabeman, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxeetan eta etxez-etxe bideok saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.
- 26 urteko neskek etxeko lanak egingo lituzke, orduka, bai goizez eta bai arratsaldez. Tfnoa: 77 04 97 Nati.
- Esperientzia duen neskek etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 97 58.

SALEROSKETAK

- Gozotegirako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapatilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.
- Bi markako SONOR soporte platerak, Bateriazko aulkia eta paiste 3000 Rude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabilita daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M aluminiozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 79 91 59. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- PC erostegatik Toshiba ITX-10 ordenadore salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonoa, 2 Yoostich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 pza. Tfnoa: 78 15 86.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Egoera onean. Tfnoa: 79 15 96
- R-12 salgai. Dei 8etatik aurrera 79 33 43 tfnora.

DENETARIK

- Otsailaren 14ean monopatina galdu nuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)

ARRASATEN HILDAKOAK

Jose Antonio Markina Nuevo
Martxoaren 28an. 20 urte

Benigno Ibarzabal Agirrezabala
Martxoaren 31an. 77 urte

Juana Uribetxebarria Agirre
Apirilaren 2an. 75 urte

Magdalena Alvaro Martinez
Apirilaren 2an. 69 urte

Ana Isabel Duran Garcia
Apirilaren 3an. 24 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Felipe Murgoitio, CIVASako hautsei billurrik ez eutsen Udelako alkatie



Udelatxen, Asentzixon, Felipe eskumakue

Gerra ostien Soruetxera

Gerrie akabau eta laster sartu nitzuan ni Soruetxen Kaximiro Uriben bittartez. Lehenau itxurie kurtideixie egon zuan han eta zapatilla fabrikie be bai baiñe ni ez nitzuan horreitten ibilli, ni sartu nitzenerako kendute jazan horreik. Guk esmerill-harrixie eitten gaixuan. Granue ekarten juen zakuetan eta gero hauts bateaz ero moldietan gogorketan zuan.

Lana txarra?

Askok esaten juek txarra zala. Pertsona batzui entzun jutziet, "Ni han pasetan nitzenien ahue zerraute pasetan nitzuan"; "Lelo galanta hintzen, joder". Gehixenak hildde jazak niaz ibilitekuek ta jentiek, "bai, zu por milagro zauz bizik, hanguek danak hil ddie"; "ta beste lekuetakuek ez dittuk hiltten, ala". Hautse egoten zuan han baiñe fundeziñokue morukue ez, e!, hareik burdiñie tragetan juen eta harek ordeixe jaukek, eta ha barruen ordeittu eitten dok. Orduen asko galtzen zittuan hola.

Joxe Errartena

Joxe Errarte zaharra zuan eta juen zuan Donostiera rayosien pasetan. Ta, rayosien pasau zaniien esan joztien: "usté tiene unos pulmones como un chaval de 14 años". Harek zenbat hauts tragau ete juan, mille kilo baiñe gehixau! Naturaleziek pe puxkat ingo jok. Beste bat Galarra-ko Kojue, hareik bixek molinuen jabitzen ta boo! hautse, jesauss, behetik gora... kapie eindde, belarririk pe oker oker. Baiñe ze koño, jentien barriketie, txarra zala ta bestie zala; danak dittuk txarrak!

Mietzerrekako kanteran osatu

Hortik urten eta gero ibilli nitzuan fabrikara sartzeko ta, rekonozimendue pasetan, juen nitzuan Don Kalixtoana. Ta "Uumm, zu Pakeak etzau ametiruko". "Zer ba?". "Zuk e, laster bajie ta barriketie dauketzu". Juen nok Bilbora mediku bateana, larogtamar duro kostau jatan: "Usté no tiene nada, si usté tendría que ir al extranjero, tiene, un poco tiene, ya no podría ir al extranjero pero pa España... Usté está limpio". Gero, hemen ibilli nitzuan, Mietzerrekako kanteran eta zenbat hauts tragau, puff! Handik bieldu gaixuek rebisiñue pasetan Don Kalixtoana: "Oohh, a usté se le ha pasau mucho, está mucho mejor". "Si, con los medicamentos que he cogido". Nahikue juau.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Udabarrrio abadiak konjurua eittera joaten zien baserrittara. Patrifiñiuek eñ ondoren abadia roketia erazten zeuan sukaldian.

— Jango dau arrautzatxo bat berorrek? —etxekoandiak.

— Ez, ezta pentsau be. Eztaukat goseik.

— Baiña horraitio ezingo da berori baraurik joan. Jango dau arrautzatxo bat.

— Ezetz, ezetz, gaiñera prixaka samar be banabil da...

— Baiña arrautzatxo batek eztotsa kalteik eingo...

— Bueno ba, ateraizuz bi.



Zirisartzaile bi zien, bixak plaentziarrak. Valladolidko unibersidadian bixak alkarrekin estudixau ei eben. Beti alkarri adarra jotzen, eta bixak alkar hartzen ebenian inguruko guztiei.

Hola emon ei eben estudiante denporia. Handik alde egin ebenian, bizimoduak bakoitza bere aldetik eruen eban.

Bista haundikuak zien bixak eta gerra-buelta horretan bata jeneral egin zan eta bestia obispo.

Urte asko zien alkar ikusi barik, eta hor, gutxien uste eben momentua eta lekuan, nun suertau zien: Donostiako Norteko estaziñuan trenan zain bixak. Obispuak konturatu zan bere lagun zarra han zeguala andenian bere jeneral-uniforme dotoriakin.

Haura zan bere okasiñua. Urreratu jakon eta preguntau zotsan:

— Duda barik zu izango zara estaziñoko jefia, ezta? Zera jakin nahi neuke, ia Madrillerako trena seiretan puntuan dan.

Militarra obispuai, bape ikaratu barik:

— Seiretan puntuan, bai andra.

Juan Martin Elexpuru



ERAÑA AHOLKULARITZA

Orotarako aseguruak

Kontzeziño kalea 4, etxabea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



Laso argazkia

Mondragoeko udaltzainak 1950-54a bitartean

Hementxe dituzue, dotore asko, Mondragoek 50. hamarkadan zituen udaltzainak, herriko plazan. Ezkerretik hasita, Jose Manuel Arriola, udaltzaina 1939tik 1981eko martxora arte, kabu graduazioaz jubilatuta arte. Bonifacio Zubialdea, "Torres", beteranoena, 1922an sartu zen gauzain lanetan, 1954ean jubilatuta arte. Aspalditxo hil zen. Eugenio Barrutiabengoa "Arbe"k 1938an

lortu zuen behin behineko lanpostua eta 42an behin betiko udaltzain bihurtu zen, 1978ko irailean erretiratu zen arte. Joan den abuztuaren 8an hil zen. Azkenik, Federico Palencia, 1949an kale-garbitzaile izan zen, eta 1950etik 1984era arte, udaltzain.

Ez dakigunez seguru noizkoa den argazki hau, 1950 eta 1954 artekoa dela esango genuke, bi arrazoiengatik. Plaza erdian zegoen kioskoa 1950ean kendu zen

eta argazki honetan ikusi egin beharko litzateke bestela. 1954ean, bestealde, Bonifazio Zubialdea jubilatuta egin zen. Argazki hau, bistan da, Torres jubilatuta aurretik atera zuen Lasok.

Arriolaren atzean, erdiko kaleko Mendiaren etxean dagoen balkoi-begiratokia orain bost bat urte jausi zen. Plazako harrizko jarlekuak ere desagertu ziren, kantoiko balkoi-begiratokia bezala. Gaur eguneko "Kajoi" taberna "Urizar" zen garai hartan.



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: Otalora 1ean
Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Hitz gezidunak

EGITSU		AIBI		DAIUN		KATTIZEA		AEK
KEILHBA- DE		TARZAL		UNITA		ZE		
ZUTIGATE								
RANIZU								
						AI		
						EGAITSU		
AT			UKAN					ARIZKIK
XUTAK			UHUXARR					
						IES		
						DAGU		
HR	UZ			TGZA				
	HADIL			RA				
		AHAKUT						
		IKAZ						
ZEDURI								ROO
ARIL								
				AROG				
				LA				
RAID						ARI		
MAAKLA								
						KO		

Soluzioak

K	O	-	V	L	V	K	V	M
V	R	-	V	R	I	R	D	
R	O	R	A	R	A	R	I	
I	-	I	D	E	R	Z	I	
K	A	K	H	V	H	H	R	
Z	L	Z	G	V	Z	-	-	
I	S	E	V	X	L	K	U	
K	A	K	N	V	L	T	V	
V	I	A	N	U	R	I	R	
E	L	E	T	U	Z	G	V	
K	A	K	I	D	E	B	E	
Z	I	I	S	I	S	I	S	

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

Ane Leturia Telleria And. MEDIKU PODOLOGOA

OIN-PLANOAK, OIN-ARKEATUAK, MIN MEKANIKOAK EDO/ETA MIN HANDIGARRIAK, DIABETIKOAREN OINA, KIROLARIAREN OINA, etab.

Kontsultarako aurrez ordua eskatu

Nafarroa Etorbidea 7, etxabea. Tfnoa: 77 07 89 ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Minez gainezka

Oroimenak borrokan zebiltzan amets hartatik txistu luze batek esna arazi ninduen. Leihoaren lurruna garbitu ondoren, geltoki berritua ikusi nuen aurrez aurre.

Sapaiari eusten zioten ohol mardulak hodi mehe zilarreztatu ziren bihurtuak. Oroimenean mimoz gorde nituen akantozko hostoez margoturiko baldosak hotzbero modernoak jarri zituzten, denak berdinak, birkiak bailiren. Abiapuntu izan nuen geltokia gutziz ezkatutua zen.

Baina ez, ozenki aditu nituen zurrumuruak ez zeuden nirekin ados. Dolua zeraman atso gizenaren zurrumuru ozenak, okindegiko alabaren kaskarinkeria zabaltzen zuten. Atsoaren ondoan zegoen andereñoak, berriz, ez zuen inongo presarik, agian guinness-en jarri nahiko zuen bere izena, egunkari banatzearen moteltasun marka hautsiz.

Egunkariaren aurreneko orrialdea herriko albistek betetzen zuten bitartean, azkenengoan bizitzaren antzerkiari buruzko artikulutxo bat zetorren. Azkenengo honek ez zuen aipatzen nesken kaskarinkeriarik ez eta sakristauaren alaba eta abade berriaren arteko harreman izukurik edota ez dakit noren semearen drogarako zaletasunik. Ez zeuden han hilobi hiztunak, ahoz aho sortutako gezurrezko egiak, pertsonen gainean txiza egiteko benetazko zaletasuna agertzen duten txakurrak...

Agian horregatik ez zuen inork, umeek izan ezik, artikulutxo hura irakurri.

Rafa



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

■ **Jon Sarasuaren galdera Euskadi Gazteaz.** Apirilaren bateko *Argia* aldizkarian Jon Sarasua aretxabaletarrak *Puntu jarrita* sailean sortu berri den Euskadi Gazteaz luzatzen zion galdera Joxe Mari Iriondo, Eusko Irratiko zuzendariari. Eta hauxe ziotsan: "Zergatik murriztu da musika-programaziora? Ez al duzu uste euskal gazteriak musika soilik baino gehiago eskatzen eta merezi duela?"

Iriondoren erantzunean hauxe zegoen, besteak beste: "Ez dakigu, zinez, gazteak hau beharko zuen, baina ziur gaude Euskal Herriko gazteriak hau ere gogoz hartzen duela". Kontuan hartuta azken belaunaldietako gazteentzat musika pentagramaren notak baino askoz ere gehiago izan dela, autoafirmatzeko beste bide bat (gu zaharrok *Ez dok Amairu* eta *The Beatlesen* artean kulunkatu ginen), gaur egun horrela izaten segitzen duela eta gazte euskaldunari inoiz ez zaiola besteei eskaintzen zitzaiena, hau da, bere belaunaldiko musika euskaldunek eta euskaraz egindako programak irratian entzuteko aukera eman, Iriondo oker ez dabilelako susmoa dut.

Inkestek gezurrik ez badiote, orain arte *Los 40 principalesek* Euskal Herrian ere zuen arrakasta, ia bere osoan, euskal gazteriai zor zion, programa horren entzulegoa gaztea bait zen. ETBn, bestalde, gazteek gehien ikusten duten programa, kirolez aparte, *Katu Kale* musika programa baldin bada, iruditzen zait euskal gazteriaren gustoa nahiko definituta daudela. Gustoak horiek badira eta, denok gustokoak ditugun gauzak eskatzen ditugula egia bada, gazteriak zer eskatzen duen ez litzateke zaila asmatzen.

Zer merezi duen euskal gazteriak besterik da. Besteok bezala, gazteriak ere onena merezi duela otu zait, baina ez dakit hori nola gauzatzeko den irratian mailan, eta zinez gustatuko litzaidake jakitea.

Hogeia aspaldik gaintitu zituen honek gustora entzuten du, ahal duenenan, Euskadi Gaztea eta atseginez ikusi euskal irratizaleon eskaintza nola zabaltzen den.

■ **Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia** Lastima beste urte batzuetan bezala, aurrean ere ETBk ez irabazi izana Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia erretransmititzeko eskubidea. Baina hor dago Euskadi Irratia lan ezin dotoreagoa eginez, txirrinduzale euskaldun guztion gozamerako.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu


■ **Kirolak:** Larunbata, egun aparta ETB leian kirolzale guztiontzat. 15,15etan NBAko saskibaloia neurketa helduko bazaigu, 8etan emozioa parra-parra: Erreal eta Madrileko Atleticoa aurrez aurre Atotxan.

Igandean, 6,15etan, ACB liga-ko saskibaloia partidua.

■ **Marathon Man:** John Schlesinger-ek zuzendutako filmea, ostiralean, 9etan. Antzesleak Dustin Hoffman eta Lawrence Olivier. Istoria hau Babe eta Szellen arteko eztabaidan oinarritzen da. Babe, ikaslea, zorioneko korrikalari izatearekin amets egiten du eta bere aitaren izena garbitzen saiatzen da. Szelle, hiltzailenazia, mendeku bila hurbiltzen da New Yorkera.

■ **Hiru Mosketeroak:** Igandean, 15,15etan, George Sidneyk zuzendutako bertsoia. Hor ikusiko ditugu alde batetik D'Artagnan, Atos, Portos eta Aramis; bestetik, Richelieu kardenal zuhurra. Honako filmean, antzesle hauek hartu zuten parte: Lana Turner, Gene Kelly, June Allyson eta Angela Lansbury.

bideoak



Komunikazioaren garapena

Planetan garatu diren bizi-mota guztien artean, gizakia da adaptagarrien eta eragileena. Harriokor batez ehizean zebilen gizaki-tximinotik ilargian pausatu den gizaki teknologikoraino bidea zitzu bizian egin da.

"Bizia lurrean" seriearen 13. kapitulua.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Truinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Hemendik aurrera, aukera izango duzue, Arrasate Pressen ezik, beste egunkari batzuen Arrasateko kroniketan ere, ATBren asteroko programazioaren berri izateko. DV, Egin, Deia, Correo eta Loiolako Herri Irratiko kronistak joan den ostiralean hasi ziren gure programazioak jasotzen. On dagizuela.

Legatz medailioiak eta gatzatua paratu zituen Bisi Bengoa sukaldariak astelehenean ikusiko dugun Saltsa-maltsan programarako. Bigarren programa hau ere Garagartzako Lezetxiki elkartearen grabatu zen. Bisik Eskoriatzako Irakasle Eskolako sukaldaria da. Primeran konpondu zen Karmele Zuazubiskar aurkezlearekin.



aste ko PROGRAMAZIOA

9 ASTELEHENA

- 20.00 **Berriak**. Aurkezlea: Koldo Rodriguez
20.20 **Mondrasport**, Jon Anduezak aurkeztua
20.45 **Saltsa-maltsan**. Aurkezlea: Karmele Zuazubiskar. Gorbidatua Bisi Bengoa sukaldaria. Legatz medailioiak eta gatzatua prestatuko ditu.

10 ASTEARTEA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)

11 ASTEAZKENA

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguez aurkeztua
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. Mahaingura, Jose Mari Velez de Mendizabalek aurkeztua. Gaia: Aste Santua. Gorbidatuak: Jose Mari Astigarraga parrokoa, Xabin Arieta eta Eneko Bergara.

Apirilaren 12-13-14-16 eta 17an ez da emisiorik izango.

18 ASTEAZKENA

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguez aurkeztua
20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**. Mahaingura, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzenduta. Gaia: Baserrien agerpen eta desagertzea. Gorbidatuak: Bixente Pagoaga, Zeleno Arana, Maite Aristegi eta Alberto Iñurista.

19 OSTEGUNA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)

20 OSTIRALA

- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguez aurkeztua
20.20 **Erretroatx**, Aurkezlea Jose Ramon Elortza. Gorbidatua: Julio Galarta pintorea.
20.50 **Musikantoi**: Aurkezlea: Asier, Mikol, Pepe eta Pabli Monografikoa: Barmkada taldeak Madriren emandako kontzertua bere osan. Asteburuko agenda.

21 LARUNBATA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretroatx** (bezperakoa)
12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
13.40 **Saltsa-maltsan** (azkena)
14.10 **Zenbat buru, hainbat aburu** (asteazkenekoa)



22.

k a n a l e r a
g o a z

Apirilaren 9tik aurrera, astelehena, 22.kanalera goaz, UHF utzi gabe. Kontuan hartuta 23.kanalean sartzen zaigun interferentziak lausotu egiten duela irudia, ea astelehenetik aurrera hobeto ikusten dugun. Anplifikadorea ipini behar izan duzuenok ez duzue zertan kezkatu: 22.era pasatu eta nahikoa. Zorte on!



Otalora 2, ARRASATE

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Iragandako baloreen eta etorkizunerako dauzkazun helburuen inbentarioa egitea lasaigarria izan daiteke; galkor kutsua duen edozein asmo alde batera laga beharko zenuke.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Etxekoenganako daukazun ohitura ukakor hori askatzea eta egizale izatea komeni zaizu, ez dizu ondorio txarrik ekarriko eta.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Gorabeherak izango badira ere, senide zein auzakideekiko harremanak pozgarriak izango dira aste honetan. Sormen intelektuala garatu beharrezan zaude.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Irakasbide berri zein teknika eraberritzaileak erabiltzea komeni zaizu, aukera aurrekoien bat suertatuko zaizulako. Maitasuna idealista da eta lanbidearekin azalduko da.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Lan arloan, aurrera egitea lortu duzu ekonomikoki, baina horrela jarraituko baduzu oinarriak sendotu beharko dituzu. Senide zein auzakideekin suerta daitezkeen tirabirei ez jaramonik egin.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Bizimodu berria hasiko duzu aurki. Helburu horiek gauzatzea emankorra izango da, senide eta lagunaren beharra izango duzu horretarako.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Pronto egon zaitez, urrutirako bidaiaren bat suerta bait daiteke derrepentean. Harreman erromantiko hori sendotzeko ahalmena izango duzu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Kaltetuekin eta arazo larriak dituen jendearekin denbora eskaintzea onugarria izango zaizu, zuhurra eta diskretua izaten saiatu zaitez beti ere.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zeuri dagozkizun erabakiak zeure kabuz hartzeko ordua da; eskarmenduaz eta senaz baliatu zaitez. Ez itzazu nahas nahia eta dirua.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Eskuarteetan darabiltzazun tratuak idatziz gauzatu eta letra bitxiz azaltzen dena arretaz aztertu; ez ahaztu berbak haizeak eramaten dituela.




SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Seme-alabak zure beharrez dituzu, egon zaitez adi; beren arazoak ulertzeko beren parean jartzeko eta erantzun egokienak ematen saiatu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Normala baino gehiago arduratzen zara zeure osasunaz. Gehiegizko ardura honek benetan gaitoxotzera baino ez zaitzake bidera.




HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE


Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA


Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



Otalora kalea.

Musakolako Eskola Publikoko argazkigintza taldekoek egina.

Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA



Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71